

BherriLab txostena

**HERRITARREN BERRIKUNTZAKO BHERRIA LABORATEGIAK
ESPAZIO PUBLIKOEN KUDEAKETA KOMUNITARIORAKO BIDEAN**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

**BOLUNTARIOTZAREN
EUSKAL KONTSEILUA**



**CONSEJO VASCO
DEL VOLUNTARIADO**

AUKIBIDEA

1. HITZAURREA

- 1.1 Bherriak BherriLab bultzatzen du
- 1.2 Zer da BherriLab?
- 1.3 Espazioen kudeaketa komunitarioa

2. LABORATEGIAREN METODODOLOGIA

3. PARTE HARTZEA

- 3.1 Sesioak
- 3.2 Komunikazioa
- 3.3 Ebaluazioa

4. EMAITZAK ARLOKA

- 4.1 Sarrera
- 4.2 Arlo bakoitzaren laburpena
- 4.3 Dokumentuen datu-basea

5. ERANSKINEN SERRENDA

1. HITZAURREA

1.1 BHERRIAK BHERRILAB BULTZATZEN DU

Bherria harreman eta lankidetzaren publiko-sozialerako modu berri irekiagoak, parte-hartzaileak eta erantzunkideak aztertzerako eta sustatzerako bideratutako programa da. Bherriak, batik bat, topaketarako eta ikasketarako espazioa izan nahi du, administrazioko teknikari eta politikarien eta herritarren artean partekatua. Programa Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak bultzatzen dute, eta 2017ko irailean hasi zen garatzen.

Orain, Bherriak BherriLab izeneko formatu berria aktibatu du, berrikuntza publiko-sozialera bideratutako herritarren laborategia, komunitate bateko kide ezberdinen artean era askotariko erronka zehatzak jorratzeko. Gaiaren inguruan irtenbide posibleak bilatu nahi dira, eta, arrakasta izanez gero, eskala handiagoan aplikatu eta/edo beste ingurune batzuetara transferitu. Hortaz, BherriLaben helburua da gauzatzerako iritsiko diren aukerak aurkitzea, agente ezberdinak elkarrekin elkartzeagatik.

1.2 ZER DA BHERRILAB?

BherriLab bat da erronka bera duten agente ezberdinak topatzeko eta elkarrekin lan egiteko egoera. Egoera hori ahalik eta baldintza onenetan gerta dadin, BherriLabek adimen kolektiboan, baterako diseinuan, lankidetzako esperimentazio irekian eta konfiantzako harremanen sorreran oinarritutako printzipioak, prozedurak eta erremintak ematen ditu.

BherriLab bakoitzak formatu ezberdina hartzen du jorratu beharreko erronkaren izaeraren, duen garapen-fasearen, parte-hartzaile motaren eta kopuruaren eta laborategirako jarri beharreko denboraren eta baliabideen arabera. Oro har, BherriLab batek hiru une konbinatzen ditu: 1) jorratzearen dagoen erronkaren gaineko informazioaren eta esperientzien inguruko diagnostikoa eta trukea; 2) irtenbideen proposamena, diseinua eta prototipatua; 3) lortutako emaitzak partekatzea eta egiaztatzea. Gainera, erronka bera jorratu eta hobetu daiteke segidako laborategietan.

1.3 ESPAZIOEN KUDEAKETA KOMUNITARIOA

BherriLaberako lehen erronka bezala, espazio publikoen kudeaketa komunitarioa jorratzea proposatu du. Alderdi horrek lotura estua du [Bherriaren Dekalogo 8. puntuarekin](#), administrazioaren “kode burokratiko irekitzeko” eta prozedura esperimentazioaren zerbitzura jartzeko premia aipatzen baitu, bermeei eutsiaz.

Arrakasta-kasu partikular eta hautazkoez haratago —kasu bakoitzean era batera jokutzen da, denentzako arau edo erregela bat jarraitu gabe—, BherriLab 1en erronka da proposamenak egitea —tartean dauden agente guztien artean—, udal-politikan sartu ahal izateko, espazio publikoen kudeaketa komunitarioko proiektu berriak garatzea erraztearren.

Laborategian lanerako lau ardatz jorratzen dira, espazio publikoen kudeaketa komunitarioa bultzatzerakoan herri administrazioaren eta herritarren arteko lankidetzarako esparruak indartzen jarraitzeko dokumentuaren zirriborroa egiteko: esparru juridikoa, lankidetzak, kontzesiorako eta esleipenerako irizpideak eta kudeaketa komunitarioaren inpaktua ebaluatzeko adierazleak.

Lan-prozesuan zehar, BherriLabean esperotako emaitzak esperientzia zehatzen eta hurbileko edo beste leku batzuetako testuinguruaren arteko gurutzatetik sortuko dira. Hauek izango dira hiru emaitza nagusiak:

1. Espazioen eta baliabideen kudeaketa komunitarioan interesatutako agente publiko-sozialen sarea eraikitzea. Askotariko sarea, potentzial handikoa, ezagutzen eta esperientzien laguntzarako, kontsultarako eta trukerako.
2. Protokolo batean aurreratzea, espazio publikoak lanerako lau ardatzaren inguruan lagatzeko jarraitu beharreko urratsak ezarriko dituen. Gutxieneko ibilbide bat handitzeko, ulerterraza, operatiboa eta autonomia aplikazio praktikoa duena.
3. Baliabideen katalogo administratiboa, juridikoa eta legezkoa eta araudi-emailea egitea, espazio publikoen kudeaketa komunitarioko premiei eta eskaerei azkar erantzun ahal izateko.

Gure helburua, oraindik ere, komunitatearen dinamizatorako proiektuak sustatzea, sendotzea eta laguntzea da. Honekin batera, gatazka, onarpen, adostasun eta eragileen arteko elkarlaguntza bultzatzen dugu eta herritarren ekimena eta administrazio publikoaren artean ahalegin berezia egiten dugu.



2. LABORATEGIAREN METODOLOGIA

BherriLab 1-en lan-prozesua parte hartzen duten pertsonen ezagutzatik eta esperientziatik abiatzen da.

Lankidetzako erremintak eta lanerako metodologiak erabiltzen dira, baterako sorkuntza, sormen aplikatua eta adimen kolektiboaren erabilera indartzen dutenak.

Eta aurreko puntuan aipaturiko profilen inplikazioa bermatu nahi du. Horretarako, parte-hartze dibertsifikatu, eskuragarri eta inklusiboko formulen gradientea sartzen du; hain zuzen ere, ondoren agertzen den jarduera-programan zehazten dena:

2.1 HIRU SAIO PRESENTZIAL:

> 1. Saioa: Diagnostikoa eta informazioaren trukea.

2018ko azaroak 30. Plateruena (Durango)

09:00-13:00ak bitartean. Saio irekia.

BherriLaben aurkezpen publikoa eta abian jartzea. Deialdian sartu den aurretiko materialetik abiatuta —erronkari buruzko dossierra eta jorratu beharreko lau ardatzak—, proposaturiko erronka zehaztu eta elkarren artean egoera-diagnostikoa egiten da. Diagnostikoan, deskribaturiko lau ardatzetako arazo ohikoenak sartu dira, gehi bosgarren ardatz irekia, hasieran proposaturiko esparruan kokatu ezin badira ere, erronka jorratzeko garrantzitsutzat jotzen diren ekarpenak bildzen dituena.

Saioan, ondorengoak burutu dira: agenteen arteko elkarrizketa dinamikoa eta harremana; kasuistiken maparen baterako sorkuntza, adibide zehatzak eta beste espazio batzuen erreferentziak; gaia elkarren artean zentratzen, hautatzen, osatzen laguntzen duten metodologiak erabilera.



> **2. Saioa: Protokolorako ekarpenen proposamena, diseinua eta prototipatua.**

2018ko abenduak 18. Rogelia de Álvaro Elkarten Etxea (Gasteiz)

09:00etik 17:30era. Gonbidapen bidezko saioa.

Prozesuaren barneko lan-saio trinkoena, bideratzen joateko, espekulatibotik zehatzera igarotzeko. Helburua da proposamen bat egitera iristea, gainerako taldeekin partekatu ahal izateko; alegia, protokoloan klausula moduan sartzeko irtenbideak zehaztea.

Hamar laguneko talde txikietan egingo da lan, ardatz bakoitza sakontzeko. Taldeak hainbat metodologia izango ditu, elkarrekin pentsatzen eta proposatzen laguntzeko: elementu zehatzen disezioa, fitxak eta eskemak egitea, rol-jolasen edo prototipatze-jardueren bidez eraikitzea eta egiaztatzea, besteak beste.



> **3. Saioa: Lortutako emaitzak partekatzea, egiaztatzea eta erabiltzeko modu-aukerak / hurrengo urratsak.**

2019ko urtarrilak 28, Uliako Lorategiak (Donostia)

10:00-13:30ak bitartean. Saio irekia.

BherriLab 1eko bateratze-lanerako sesioa da. Azken iritziak jaso eta norberaren konpromezuak ezartzeko unea da.

Prozesuaren errebaso xumea eta emaitzaren aurkezpen zehatza egin ditugu. Talde ekimen txiki batekin amaiera eman diogu norberak bere konpromezua elkar banatzeko eta bakoitzak bere komunitate kudeaketa prozesuen garapenean jarrai dezan.



2.2 KANPO ETA BARNE KOMUNIKAZIOA (ZEHARKAKOA):

- > Komunikazioaren zeharkako geruza, berez BherriLaben esperimentazio-prozesuan bertan sartzen dena.
- > Gertatzen ari denaren informazioa ematea eta espazio publikoen kudeaketa komunitarioan interesatuta dauden pertsonekin konektatuta egotea.
- > Denentzako kontakizuna bilatzea, edukia modu osagarrian sortzea, laborategia era presentzialeaz haratago zabaltzea, sare sozialen bitartez edo gertatutakoa kontatuaz eta dokumentatuaz.


3. PARTE HARTZEA

3.1 SESIOAK

BherriLab laborategia hiru lan sesiotan garatu da bakoitza EAEko lurralde historiko batean:

- > **2018-11-30**
Plateruena (Durango).
65 pertsonak hartu du parte.
- > **2019-12-18**
Rogelia de Álvaro Elkarteen etxea (Vitoria-Gasteiz).
31 pertsonak hartu du parte.
- > **01-2019-01-28**
Uliako Lore Baratza (Donostia).
48 pertsonak hartu du parte.


Guztira 85 pertsonak aurrez-aurreko hiru sesioen batean parte hartu dute. Hurrengo grafikoan pertsona hauen profila agertzen da laborategian eduki duten paperaren arabera.



Generoari dagokionez, aurrez aurreko parte hartzaileen % 52,9 emakumezkoak izan dira eta %47,1 gizonetzkoak.



Hurrengo infografian partehartzaileen jatorria adierazten da: Arabakoak %16,5 dira, Gipuzkoakoak %34,1 eta Bizkaikoak %49.4.



3.2 KOMUNIKAZIOA



Komunikazioaren erabilera balore publikoa sortzeko oinarri bezala gakoa izan da. Bherriaren nortasunaren ezaugarria da eta jakina BherriLabekoa ere bai. Harreman publiko-sozial prozesu honetan eta beste batzuetan garrantzitsuena pertsonekin konektatzea da. Hau lortzeko leku digitalak eta aurrez aurrekoak nahasten ditugu eragileek aukera eduki dezaten erronka zailei erantzuna emateko.

Komunikazioa ez da bakarrik MOBILIZAZIO sozialerako tresna eraginkorra soilik. Hau guztia ere bada:

- > ENTZUTEKO, konektatzeko, informatzeko, erakartzeko... aukera
- > Ikuspuntu desberdinen arteko KONTAKETA sortzeko gunea
- > Pertsonen arteko KONFIANTZA eta LOTURA lantzeko modua.
- > Pertsonak harremanetan jarri eta honela SAREA sortzeko laguntza

BherriLab herritarren laborategia da eta bere helburua leku publikoen komunitate kudeaketa da. Hau oso interesgarria eta konplexua da. Proiektu honetarako diseinatutako komunikazio estrategiak proiektua bera hobeto ulertzen lagundu nahi du. Hau ez da informazioaren ikuspuntutik bakarrik, baizik eta, ekimen, esperientzia eta baliabideen ikusgarritasunerako ere baliozkoa da. Honek gobernantza publiko eta sozial mota honekin aurrera jarraitzen lagunduko digu.

Honela, BherriLaben, <http://www.bherria.eus/> web-orriko blogean azken zortzi asteotan edukiak argitaratu dira eta 5.000 baino gehiagoko bisitaldiak jaso dituzte. Hauek hiru ardatz hauen inguruan daude: (I) Proiektua eta bere faseen inguruko informazioa, (II) laborategiaren edukietara

balorea gehitu ahal duten eta martxan dauden proiektuak eta haien adituen elkarrizketak; (III) Sesioen berriak.

Artikulu guzti hauetaz gain, proiektuan zehar ikus-entzunezko dokumentuak jaso ditugu elkarrizketa moduan. Ikuspuntu anitzak eta gaiari lotutako iritziak elkartzeko partehartzaileei elkarrizketak egin dizkiegu. Bideoak gakoak dira gertatzen ari dena kontatzeko, informazioa eskuratzeko eta hausnarketa eta eztabaida sortzeko. Gure Twitter eta Facebook kontuetan eta Youtubeko kanal irekian 14 bideo ekoiztu ditugu 34.000 bistaratze baino gehiago eduki dutenak.

3.577 pertsonak Facebook eta Twitterren hashtag #BherriLab duten argitalpenetan elkarrizketen bidez parte hartu dute; etiketa hau duten edukiak 6.276 aldiz erabili dira. Datu hau gure aurrez aurreko parte hartze altuarekin bat dator, herritarren laborategi honetan 170 pertsonatik gorak hiru sesiotan parte hartu baitute.

Eduki guzti hauek Facebook eta Twitterren 2.653.124 balizko erabiltzaile lortu dituzte. Hau da, proiektua garatu den 12 asteetan zehar BherriLabeko edukiak ikusi ahal izan dituzte.

Laborategi honetan ikusi dugun bezala, ebaluaketa adierazleak garrantzitsuak dira prozesuak hobetzen laguntzen digutelako. Datu hauen bilketaren ondorio batzuk ondorengoak dira:

- > Komunikazioak, zentzu zabalean, partehartze handia lortzeko lagundu digu—3.500 modu digitalean— aurrez aurreko 170 pertsonekin batera non digitalean hasitako elkarrizketa garatu duten.
- > Erabiltzaileek informazioa jasotzeko gustukoak duten formatua bideoa da. Elkarrizketek komunitatean benetako interesa sortzen dute, bai edukiagatik eta bai elkarrizketatutako pertsonen aniztasunagatik.
- > Kanpoko erreferentziak oso lagungarria dira ulertzeko eta ikasteko egiten ari denaz, ikasi behar denaz eta ondo egindako gauzez. Ez gara zerotik hasten.
- > BherriLab eta Bherria ezagunak dira gure publikoaren artean; ingurune hurbiletik kanpora irten gara.
- > Komunikazioari esker, herritarren laborategi honekin koherentea den kontaketa sortu dugu.

3.3 EBALUAZIOA

Prozesu honen ebaluazioa, BherriLab honetan jarraitua da, partaide bakoitzari bidaltzen zaion formulario digital baten bidez, saio bakoitzeko galderekin. Azken formularioak, halaber, laborategiari buruz bere osotasunean egindako galdera batzuk hartzen ditu barne.

Laburbilduz, honako gaiak nabarmendu ditugu. Ebaluazioen zati handiena [eranskinean](#) kontsultatu daiteke.

3.3.1 Baloratuena

- > Laborategiaren gaiaren egokitasuna. Lurraldeko udalerrri askori – edo guztiei- eragiten dien kezka bati dagokio. Erabat premiazkoa den hasiera puntu honekin une honetan jarraitu eta garatu beharko litzateke.
- > Laborategia gainontzekoei gerturatzen zaien irizpidea — lana erkidego kudeaketaren lau eremutan murgilduz —, lanari ekin egiteko egokitzat jo da.
- > Koordinazio taldeak adierazitako prestutasunari esker partaideen artean ‘lan-taldea ’ eta lankidetzan aritzeko konfiantza sortu daiteke.
- > Bai administrazioetako eta bai hiritarren ekimenetako eragile desberdinen parte-hartzea. Potentziaz eta aukerez beteriko nahasketa; buru politikoek eta intzidentzia eragiteko eta/edo erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa duen zenbait profil teknikoren parte-hartzea faltan bota da.

3.3.2 Zer hobetu daiteke

- > Topaketetarako guneak. Erronkari dagokionez aukerak adierazten dituzten proiektuei dagokie — hauek praktika egokien adibideak dira —, eta horiek zuzenean ezagutu ahal izan ditugu zorionez. Hala ere, ez dira taldeetan eztabaidatze-lanerako erabiltzeko egokiak, bai euren tamainarengatik —edo oso handia edo oso txikia—, azpiegiturengatik, edo inguruabarrengatik...
- > Eztabaidarako denbora gutxi. Saioak ondo egituratuak eta zuzenduta daude, baina gogoeta, eztabaida eta eraikuntza kolektiborako denborak eskasak dira. Era berean, gaia luzea eta konplikatu da eta ezinezkoa da hain denbora gutxian horri buruzko ondorioetara iristea.

3.3.3 Aldaketak nola ezarri

- > Denek bat egiten dute BherriLab hau zoragarria eta abiapuntu egokia dela esatean; horri esker eragile desberdinak (bir)ezagutu daitezkeela eta jarrera desberdinetara iritsi daitezkeela, askotan aurkakoak direnak; kudeaketa publiko eta sozialeko ekimenak abian jartzeko aurrekaria dela; eta egindako lanarekin jarraitu behar dela.
- > Mota honetako eta gai berdinetako prozesu egonkor bat egituratu behar da.

3.3.4 Bestelako mugarri zehatzak

- > Maila politikoak parte hartzea. Nahi politikoa oso garrantzitsua da mota honetako proiektuak gauzatu daitezen.
- > Begirada desberdinek norabide bereberean bat egitea. Mota honetako topaketekin, mesfidantzak desagertzen dira eta estereotipoak gainditzen dira.
- > Azpiegitura eta baldintza materialak kontuan hartu behar ditugu lan prozesu bat ezarri nahi bada: hotza Donostian, zarata Gasteizen, talde handiegiak Durangon.

3.3.5 Lortutako helburuen balorazioari buruzko laburpena

Konfiantzazko espazio bat sortu dela uste al duzu, zure zalantzak eta kezkek partekatzearen?	Bai	Ez
	93,8	6,3

Antzeko zalantzak eta esperientziak dituzten pertsonak ezagutu al dituzu?	Bai	Ez
	96,9	3,1

Zure ulermena zabaltzeko aukera izan duzu beste ikuspuntu osagarriekin?	Bai	Ez
	96,9	3,1

Erabiltzen ez diren espazio publikoen kudeaketa komunitarioari dagokionez, zure ikuspuntua zabaldu dezakeen gakoren bat aurkitu al duzu lankidetzaren publiko-sozialaren erronkan?	Bai	Ez
	73,4	26,6

Ikasketa praktikoren bat aplikatzeko asmoa daukazu parte hartzen duzun proiekturen batean?	Bai	Ez
	53,1	46,9

Errealitate hau ezagutarazi eta gisa honetako proiektuak ahalbidetu aldera, ekimen hau lagungarria izan daitekeela uste duzu?	Bai	Ez
	96,9	3,1

Balora ezazu BherriLabeko prozesua 0 eta 6 bitartean.	
	4,95

4. EMAITZAK ARLOKA

4.1 SARRERA

Atal honetan laborategiaren emaitzak banatu nahi ditugu. Lau hausnarketa taldeen sesioen emaitzak partekatu aurretik; marko juridikoa, lagapen irizpideen elkarlana eta adierazleak, prozesuan zehar ikasitakoa partekatu nahi dugu. Zeharkako eragin batzuk dira:

Lan konplexu eta anitza landu dugu. Esperientzia, interesa eta elkarbanatu nahi duten pertsonekin elkartu gara. Denbora laburra izan da. Errealitate honetan esperientzia mapa egin dugu, erreferentzia agiriak, elkarrizketak, bideoak eta lan arloan urrats handia suposatzen duen agiri bat. Osorik ez dagoen mapa dugu baina lanean jarraitzeko balio duena.

Prozesuaren helburua herritarren ekimena eta administrazio publikoaren artean proiektuak garatzeko oinarri izan daitekeen marko erabilgarria topatzea izan da. Iradokizun bakarra eta malgua lortzeko helburua bertan behera utzi dugu zailegia zelako. Administrazio eta herritarren eginkizun desberdinetatik ekimen hauek bultzatzen interesa duten pertsonentzat erreferentzia izan ahal diren emaitza batzuk eskaini ahal ditugula uste dugu.

Prozesu honek ekimen hauen garrantzia ikusarazteko eta lankidetzeta eta errespeturako tokiak sortzearen beharraz ohartzeko balio izan du. Deialdiaren erantzuna handia izan da eta honek bere garrantzia adierazten digu. Gainera, prozesuaren komunikazioak, blogak eta elkarrizketen bideoek esperientzia eta prozesua zabaltzen lagundu digute.

Ikuspuntuak alde batekoak eta anitzak dira. Ikuspuntu bakoitzak errealitatea sortzen du. Prozesuan zehar elkarrizketa interesgarriak lotu ditugu eta hauek ezagutzen dugunaz hitz egiten dute baina oraindik eraiki behar diren lekuak aipatzen. Proiektu hauekin lotuta dauden eragile anitzak elkartzen saiatu gara eta lotu dugulakoan gaude.

Proiektu hauei lotutako profesionalentzat, eta administrazio publikoko pertsonentzat zehazki, egokiak diren jardunaldien egunak eta ordutegiak direla eta autokritika egin behar dugu. Prozesu honek gure udaletxeek begirada berria lortzeko eragina eduki duela uste dugu.

Hurbileko errealitate asko gure lan gunetik at ere geratu dira eta honetaz hitz egin dugu; leku pribatuaren okupazioa bizitzeko, auzoak suspertzea, egitura formala ez duten herritarren ekimenak, enpresa ekimenei lekuak lagatzea proiektuak haiek susper ditzaten bizkortze ekonomikoaren bidez, elkar kudeaketarako eraikuntzen sorrera edo autokudeaketa, ogasun pribatuak eta herritarren ekimenei arteko lotura helburu sozial/publikoekin... Denak interesgarriak dira.



bherria

Laborategira ikuspuntua berria ekartzen ahalegindu gara eta badakigu honelako prozesuetan hau ez dela arrunta. Ogasun eta kontratazio teknikoek parte hartu dute eta honek administraritza publikoaren ikuspuntutik prozeduren arloa ulertzen lagundu digu. Hau ezagutzuz [proiektuak](#) bultzatzeko gakoak zeintzuk diren erakutsi digu. Prozedurara ekarri ditugun agirien artean errealitate berrira egokitze eta malgutzea somatu dugu.

Publiko/sozial elkarlanetik hasi gara eta kontzeptua garatu dugu. Bai administraritzatik bai herritartasunetik publiko/sozial deritzogunaren arduradun senti gaitezke. Honetaz gain, elkarlana aukera bat da. Atzera begiratuz, aurretik egindako lana, mespretxua, gatazka, eraso gabeko akordioak, elkarlana, lagatze eta elkarren arteko kudeaketa ...

Eraso eta defentsa dago eta hau gaitzeta gakoa da. Gure aukerak zabaldu ditugu eta gure helburu zerrendatik kanpo dauden elkarlan oinarri batzuk ezin izan ditugu bete.

4.2 ESPARRU JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA



Publiko-sozial harremanetan betebeharreko eskakizunak: konkurrentzia, onura publikoaren deklarazioa, arautegia, eta emakiden iraupena, besteak beste, oztopotzat zein ziurtasuntzat har daitezke. Pertzepzio desberdintasuna herri-ekimena eta administrazio publikoaren artean lortutako lankidetzan mailan datza. BherriLabeko arlo honetan, kontzeptuak argitzen eta lankidetzan errazten duten lege eta administrazio esparruari dagozkion berriak ematen saiatu gara.

Espazioen kudeaketa komunitarioko prozesuen esparru juridiko-administratiboa —legeak, araudiak, erregelamenduak, ordenantzak...— konplexutasun handikoa da. Esparru hori ulertzeak eta aplikatzeak testuinguru bakoitzera egokitzen den aholkularitza juridiko espezifikoa behar du. [Arkitektura Kolektiboko espazioak-higiezinak aktibatze Gida](#) bezalako zenbait material aurkitzen dira [BherriLabek bildutako dokumentu](#) batzuen artean, eta abiapuntu bikaina dira BherriLaben garatutako lanarentzat zein espazio publikoen kudeaketa komunitarioko proiektuak abian jartzen hasi nahi duten herritarren edozein ekimen edo administrazio publikoarentzat.

BherriLab honen araudi-eremuan, berme-elementuak jarri nahi izan dira eta espazio publikoen kudeaketa komunitarioko prozesuen aldeko esparru juridiko-administratiboan sartu. Horretarako, herritarren laborategi honetan landutako zenbait gako eskaintzen ditugu, arlo horretan jada aurrera doazen beste administrazio publiko batzuen esperientzien erreferentzia zehatz batzuekin batera.

4.2.1 Oinarrizko kontzeptuak.

Kotzesio hitzak ondasun publiko bat lagatzea esan nahi du, etengabe eta modu pribatiboan erabiltzeko. Espazioak kotzesio eran eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzeko, araudiak lehia-sistemara edo hautapen-prozedurara jotzen du.

Espazioaren erabilerarako, sailkatutako jarduerekin loturiko araudia bete behar da: segurtasuna, irisgarritasuna, zaratak, e.a. Horrez gain, erantzukizun zibileko aseguruak egin daitezkeen jardueren eta jarduera sailkatuen araberakoa izan behar du.

Espazioa, sailkatutako jarduera aldeztetik lortuta, herritarren ekimenak araudi hori betetzearen inguruko erantzukizunpeko adierazpenarekin ireki daiteke.

Higiezinean obrak egin behar badira, beharrezkoa da sailkatutako jarduerak aurretik izapidetzea. Horretarako, hiri antolamendurako plan nagusiarekin alderatu behar da, Espaziorako pentsatutako jarduera egin daitekeen jakin ahal izateko.

4.2.2. Interes eta onura publikoa.

Toki-administrazioek espazioak aldi baterako eta doan laga ditzakete onura publikoa bezala hartzen den jarduera garatzen duten ekimenentzat, eta kudeaketa komunitarioak bat egiten du legezko aukera horrekin.

Irabazi asmorik gabeko ekimena ez da interes publiko bateko ekimenaren baliokidea; interes publikoa era ezberdinetan defini daiteke, jotzen den legezko esparruaren arabera.

Toki-administrazioek ahalmena dute zein ekimen interes publiko bezala sailkatzeko, haien erregelamenduen eta ordenantzen arabera. Administrazio bakoitzak interes publikoko bezala zer jotzen duen argi ez dagoenez, espazioak ematerako orduan arbitrariotasuna izaten da. Gure lurraldeari dagokionean, batetik, herri-ekimen ugari dute balio publikoa sortzeko potentziala, baina argitasuna falta zaie; edota eskaera altuak medio, onura publikoaren aitorpena lortzerik ez dute izaten.

Honako hauek bezalako zenbait udal-araudietan, argi eta garbi definitzen dira ekimenen eta jardueren onura publikoa aitortzeko bideak: [Herritarrek parte hartzeko Iruñeko Udalaren erregelamenduaren zirriborroa](#); [Lankidetzaren publiko-sozialaren inguruko Ordenantza, Madrilgo Udalarena](#); eta [Herritarrek parte hartzeko Bartzelonako Udalaren erregelamendua](#).

4.2.3 Lehia librea eta aukera-berdintasuna.

Lehia librea funtsezko mekanismoa da espazio publikoa modu komunitarioan kudeatu nahi duten herritar ekimen guztien aukera-berdintasuna bermatzeko, zuzeneko esleipena justifikatzen duten salbuespenak izan arren.

Hala ere, lehia librea, proiektuen inpaktu sozial positiboak argi eta garbi definitzen dituzten [irizpiderik](#) ezean, eragozpen iraganezina izan daiteke profesionalizatorik, antolatzeko gaitasunik edota formalizatorik ez duten herritar ekimen askorentzat. Aldi berean, lehia librearen bitartez, ongi definitutako irizpideak izan gabe, lurraldean itzulera sozial argiko jarduera egiten ez duten erakundeek Espazio publikoak eskura ditzakete edota, lurraldearekiko sustraituta egon arren, beste leku batera eraman daitezkeen ekimenak egiten dituztenen esku utzi.

[BherriLabean](#) aztertutako erregelamendu eta ordenantza guztietan agertzen da lehia librea emateko prozeduran.

4.2.4 Informazioa eskuratzea.

Espazio publikoen kudeaketa komunitarioko prozesuak behar bezala garatzea bermatzeko, beharrezkoa da ahalik eta informazio gehien ematea, esparru erregulatzailarena nahiz honako hauek bezalako gaien ingurukoa:

- > Udalerriek kudeaketa komunitarioan bultzatu nahi dituzten ildo estrategikoak.
- > Interes publikoko jardueren definizioa eta herri-ekimenak interes publikoko erakunde bezala onartzeko baldintzak.
- > Espazioen inbentarioa honako hauek bezalako aldagaiak kontuan hartuta: ondasun-mota, egin daitekeen jarduera espazioaren egoeraren arabera, bete beharreko araudia edo egin daitekeen jarduera antolamendu-planaren arabera. Espazioan jada jardueraren bat egiten bada, jarduera hori kudeatzen duen herri ekimenari buruzko informazioa eduki behar du.
- > Kudeaketa komunitariorako prozedura: hitzarmenen iraupena eta proiektuak aurkezteko epeak.

4.2.5 Proiektua batera diseinatzeko prozesua (Kontzesioa).

Nahiz eta kontzesio hitzak pisu sinboliko eta juridiko itzela izan, herri-ekimenaren eta herri administrazioaren arteko lankidetzara ondasuna kudeatzeko eman baino askoz ere lehenago lantzen hasi behar da; alegia, hitzarmena edo kontzesio-akordioa sinatu aurretik, beharrezkoa da gara daitezkeen proiektuen oinarriak finkatzeko esparrua ezartzea. Hona hemen kontuan izan beharreko zenbait alderdi:

- > Proiektuaren helburuak.
- > Kudeaketa-eredua: baterako kudeaketa, autokudeaketa, zeharkako kudeaketa...
- > Inpaktu sozialeko irizpideak eta adierazleak.
- > Egin daitezkeen jarduerak espazioaren arabera.
- > Obren gaineko programa, beharrezkoa izanez gero.
- > Bete beharreko araudia.
- > Erantzukizun zibileko aseguru-motak, beharrezkoak.
- > Espazioaren mantentzea.
- > Bideragarritasuna, iraunkortasuna eta diru-laguntzen lerroak.
- > Herri-ekimenaren forma juridikoa.

- > Hitzarmenaren iraupena.
- > Lankidetzeta eta segimendu organoak.
- > Kudeaketa komunitarioko proiektua egitea.

Era berean, kontzesioaren baterako diseinua bultzatu behar luke herri administrazioak, ondasuna titulartasun pribatukoa baldin bada, espazio pribatuetan kudeaketa komunitarioaren onura publikoa interes publikoko bezala hartzeagatik. Baterako diseinuaren prozesua ebalua daiteke parte hartzeko prozesuaren kalitate-adierazleak kontuan hartuta.

[Bolonia, Herritarrek parte hartzeko Iruñeko Udalaren erregelamenduaren zirriborroa; Lankidetzeta publiko-sozialaren inguruko Ordenantza, Madrilgo Udalarena;](#) eta [Herritarrek parte hartzeko Bartzelonako Udalaren erregelamendua](#) bezalako erregelamenduetan, era batera edo bestera agertzen da herri-ekimenen eta herri administrazioen arteko akonpainamendu eta prestakuntza espazioak lantzeko beharra.

4.2.6 Emateko eta gauzatzeko prozedura.

Hautatzeko eta esleitzeko prozedurak hautatutako ekimenaren benetako onura publikoa bermatu behar du; horretarako, herritarren eta herri administrazioaren arteko lankidetzatik ateratako baldintza espezifikotara joko du. Ildo horretan, badira [Astra \(Gernika\)](#) bezalako hitzarmenak, kudeaketa komunitarioko proiektuaren diseinuaren izaera parte-hartzailea aitortzen dutenak.

Hitzarmena fomalizatzeko, kontzesioaren diseinuaren prozesuan zehaztutako alderdiak jaso behar dira. BherriLabean bildutako dokumentazioan, hurbileko udalerriek erabiltzen dituzten hitzarmen-eredu ezberdinak aurkitzen dira.

4.2.7 Araudia betetzea gaitzeko edo ez gaitzeko erreminta gisa.

Testu honetan deskribaturiko lehia-prozesuari eta araudia betetzeari aurre egiteko moduko antolamendu-gaitasuna duen herri-ekimena ez da ohikoa izaten kudeaketa komunitarioaren kasuistikan.

Dagoen araudia aplikatuta, herri-ekimenarekin egiaztatzeko eta elkarlanean lantzeko tarterik gabe, gerta liteke sormen-aldea, sozialki arduratsua dena eta borondate sozial eta komunitario onena duena, geldiaraztea kontzesiorako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko gai ez izateagatik.

Aldiz, herritarren kudeaketaren balio soziala eta komunitarioa onartzen duen araudia palanka indartsua izan daiteke pertsonen bizi-kalitatean modu positiboan eragiten duten proiektuak eta ekimenak bideratzeko.

4.2.8 Legezko instrumentuak.

BherriLabean bildutako dokumentazioa Espazio publikoen kontzesioen esparru juridiko-administratiboa definitzen duten legeen erreferentziaz beteta dago. Beste behin, [Arkitektura Kolektiboko espazioak-higiezinak aktibatze Gida](#) dokumentua aipatu nahi dugu, bertan zehazten baita inpakturik handieneko esparru juridiko-administratiboa. Hala ere, BherriLabean egindako ikerketa-esparruan, osagarri gisa kontuan hartu beharreko instrumentu posibleen erreferentzia hauek bildu ditugu:

- > [Euskadiko Toki Erakundeen inguruko Legea](#)
- > [Hirugarren Sektorearen Euskal Legea](#). Azpiegiturak garatzeko, inbertsioak egiteko, kudeaketa hobetzeko eta erakundeen jarduera ekonomikoa bultzatzeko babes-neurriak.
- > [Euskal Sektore Publikoko Gardentasunaren, Herritarren Parte Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua](#).

Aintzat hartu beharrekoa da [LAGetako trantsizio-espazioak](#) dokumentua. Lan hau egiteko, herri-ekimenak azertu dira, Lurraldeareankidetzan Antolamenduko Gidalerroetan (LAG) hiri-lankidetzak praktiketarako (tartean kudeaketa komunitarioa) babes-tresnak sartu ahal izateko zenbait gako lortzearen.



4.3 LANKIDETZA PUBLIKO-SOZIALA



Administrazio publikoa eta herritarren ekimena komunean dugun helburuari erantzuteko beharrezko eragileak dira. Esaterako, gizarte berri bat eraikitzen eragina duten leku publikoen egitasmo barneratzaileen komunitatearen kudeaketa. BherriLaben proposamena eratze honetan funtsezko eragile gisa gure burua aitortzea eta errespetatzean datza. Kapital ekonomikoez gain beste batzuk elkarbanatzen, denborak eta lan formatuak zaintzen zubiak eraikitzeko eta ekarpenak ezagutarazteko

borondatea erakusten.

Toki askotan leku publikoen komunitate kudeaketa proiektuak garatzen ari dira. Proiektu hauek hainbat modutan eta administrazio publiko eta herritarren arteko ulermen eta lankidetzaren marko anitzekin gauzatzen ari dira. Gatazka badela eta proiektu mota hauetan garrantzitsua dela jakin badakigu. Esperientzia, pertsona eta testuinguru anitzetan desadostasuna topatzen dugu eta berau eraldaketa iturri gisa ulertu behar dela uste dugu. Hau da, egoera berrien sorkuntzan aurrera egiten ahalbidetzen digun aukera gisa ulertu eta ez saihesten saiatu.

4.3.1 Lan oinarriak.

#BherriLab laborategian egindako lana egoera hauen aurrean era kontziente eta emankorrangoan lan egiteko oinarriak proposatzeko baliagarria izan da:

a. Abiadura eta denborak.

Proiektua komuna bada, abiadura biak erakusten dituen ibilbide-orri bat banatzea ez litzateke logikoa izango? Zergatik administrazioak erabakitzen du lankidetzaren abiadura, bai denborak eta lekuak ere? Elkarren arteko kudeaketa prozesuek abiadura geldoa dute eta beraz, epe laburreko itzaropenak, proiektuen beharrezko prozesu eta euren emaitzak ez datoz bat. Komunitate kudeaketaren bidezko proiektuak luzeak dira, eta batzuetan, jarraipena ez da erraza. Administrazio zein herri ekimeneko solaskideen arteko txandaketa handia izan daiteke eta honek konfiantza harremana sortzea eragozten du.

b. Ziurgabetasuna.

Administrazio publikoak prozesua kontrolatu behar du baina hainbat gauza ezin dira planifikatu eta ziurtatu. Hau dela eta, proiektu mota hauek ziurgabetasuna handitzen dute. Prozedura betetzea eta emaitzen kalitatea ez datoz bat. Zergatik baimendu proiektuak abian jartzea eragozten duten prozedurek gure lana oztopatzea? Herri ekimenari egiten uztea gutxienezkoa izan beharko litzateke.

c. Desadostasuna.

Aurreko esperientziak eta aurreiritziak direla eta administrazio publikoa eta herritarren artean desadostasuna dago: "funtzionario guztiak berdinak dira", "herritarra mehatxua da modu formalen bidez elkarlanean ez badago". Batzuetan, lehia roletan aritzen gara eraso eta babes jokaera jarraituz. Harremana asimetrikoa dela ahaztu gabe, alde biak arduradunak dira.

Konfiantza eraikitzeke lan egin behar da eta eskakizun gurutzatzeak saihestu. Erresistentzia eta blokeoa hainbat leku eta pertsonengan gerta daitezke: alderdi politiko, gobernu-organo, teknikari eta antolatutako herritarrak eta organizatu gabekoetan. Askotan, pertsona zein talde prekaritate egoera baten aurrean babesterakoan amorrua sortzen da eta honek publiko-sozial harremanean eragina dauka. Honetaz gain, irabazteko asmorik gabeko edo militante lanaren aitortza falta da. Klase politikoarekin ez dago adostasunik eta gertatzen denean baldintzak ez dira lagungarriak.

d. Konfiantza.

Partaide diren eragileen arteko harremana konfiantzatik eraiki behar da eta honela esperimentazioa ahalbidetuko da. Konfiantzarik gabe ez dago esperimentaziorik Nola eraiki dezakegu elkar aitortza eta elkarrekikotasuna? Zintzotasunean eta proposamenen oinarrian sortzen da konfiantza. Konfiantza harremanak sortzen laguntzen duten pertsonak garrantzitsuak dira.

e. Politika egiteko beste era batzuk.

Zenbaitetan, herritarrek antzematen dute administrazio publikoek osatugabeko proiektuak abian jartzen dituztela, modan dauden proiektuen alde egiten dutela eta ondorioz, herri ekimena erabilia sentitzen da. Egitasmoen atzean dauden balore eta motibazioak zaindu behar ditugu. Azken finean, beste politika publiko batzuk erabiltzean datza. Eragin soziala duten proiektuetan erronka partekatzen da eta beraz, administrazioan eta herritarren artean publiko-sozial deritzogun horren arduradunak izan behar gara.

f. Erraztea.

Zein da gakoa elkarlana sakonean errazteko? Guk ez dugu arazoaren konponketa emango tresnak baizik: zailtasunak gainditzeko elkarrekin lanean ahalbidetzen dutenak, alde bien baliabideak indartzen dituztenak, harremanetarako kapitala eraikitzea ahalbidetzen dutenak, sortzen jarraitzeko palanka diseinatzen dutenak. Laguntza prozesuetan, askotan, errazte sozialeko profesionalak azpikontratatzeko dira. Batzuetan, udaletxeetako langile teknikariak eta administrazio publikoko beste langileak jakinaren gainean dauden baina partaide diren beste pertsonekin ez da harreman maila hori sortu.

g. Irizpide eta baloreak.

Proiektuan partekatzen diren irizpide eta baloreen markoa sortzeko denbora eta energia ematea garrantzitsua da. Aurreko eskarmentuak, funtzioaren erreferentzia markoak, gizataldeek eta norbanakoek gertakarien ulermenean eragin zuzena dute. Zenbaitetan, gauza berari buruz hitz egiten ari garela uste dugu baina geroago ezetz konturatzen gara. Laborategiaren arlo honetan, udaletxe bateko esperientzia ezagutarazi da: "hitzarmena elkarrekin idazteak komuneko terminologia eta mintzaira sartzeko balio digu". Bost urte igaro dira. Zer irizpidek lagundu ahal digute elkarren arteko kudeaketarantz pausuak ematen? Zer irizpidetan oinarritu behar da lankidetzaren publiko-pribatua?

h. Komunitatea indartzea.

Batzuetan, herritarrengan elkarren arteko kudeaketa eta proiektuen ikuspunturako trebetasun eta ezagupenen gabezia somatzen da. Ezaugarri hauek dituzten lekuak kudeatzeko eta garatzeko nola bultzatu eta indar ditzakegu komunitatea, ekintzaile edo elkarteak?

i. Autokudeaketarako kultura.

Autokudeaketa ez da elkarbanatutako apustua; ez dugu autokudeaketa kulturarik sortu eta horregatik ez da onartzen. Administrazio publikoak herri-ekimenari gauza publikoak zaintzeko eta bultzatzeko eskatzen dio eta askotan kontrol bihurtzen da harremana desorekatua baita. Egitura honek pribatua ez denaren kudeaketa administrazio publikoaren esku uzten du. Elkarbanatutako helburuetara bideratzea zaila da.

j. Elkarren arteko kudeaketa.

Boterea ematea banatzea baino errazagoa da. Lege dimentsioan zein logistikaren aldetik. ¿Nola sor ditzakegu proiektuaren beharretan oinarritutako bitartekaritza sistemak?

k. Marko egonkorretan eragina izan.

Legegintzako markoetan, sistematizazioan eta esperientzia arrakastatsuak ezagutarazteko eragina izan behar dugu. Honela ekimen hauek ez dira pertsona batzuen interesen mende egongo.

4.3.2 Hausnarketak: prozesuaren emaitza.

Administrazio publikoa eta herritarren ekimena komunean dugun helburuari erantzuteko beharrezkoak dira. Esaterako, gizarte berri bat eraikitzen eragina duten leku publikoen egitasmo barentzaileen komunitatearen kudeaketa. BherriLaben proposamena eratze honetan funtsezko eragile gisa gure burua aitortzea eta errespetatzean datza. Kapital ekonomikoez gain beste batzuk partekatzen, denborak eta lan formatuak zaintzen zubiak eraikitzeke eta ekarpenak ezagutarazteko borondatea erakusten.

Atal honetan BherriLabek Gasteizen egin zuen bigarren bilkuran sortutako hausnarketarik garrantzitsuenak jaso ditugu jakinda zer eduki eta jardunbideri ezin izan diogun ekin. Hasteko lan talde honen izena zehaztu nahi dugu. Egoera globala, oraingoa eta gerokoa lankidetzan izatea zalantzan jartzen dugu. Zenbaitetan, harreman hau jarraitzeko ez gaude prest edo ez da beharrezkoa. Leku publikoen komunitate kudeaketarako elkarulertzeko markoa garatzeko oinarriak eratzea zuzenagoa dela uste dugu. Honetaz gain, proposatzen dugu komunitate kudeaketa proiektuak bultzatzeko erronka komunean indarra jartzea eta ez elkar ulertu behar duten eragileetan.

Testuinguru honetan, zehaztasun anitzak dituzten osagaiak definituko ditugu:

a. Onarpena eta ulermena.

Administrazio publikoek herritarren proposamenak onartzea ezinbestekoa da. Honetarako, elkarte eta ekimen hauen pertsona bultzatzaileen protagonismoa eta zilegitasuna errespetatu behar dute. Helburua kontrol eta tutoretzaren kultura desegitea elkar ulermenaren kultura eraikitzeke.

b. Legitimazioa.

Legeak edo administrazio publikoak ez dute ekimen bat legitimatzen edo baimen soziala lortzen. Edozein ekimenak irabaz dezake legitimazioa bere proposamena dela medio. Administrazio publikoak herri ekimenak babestu eta indartu behar ditu gizartearen ahalmena onartuz eta bere botere eta ahalmena aitortuz.

c. Borondate politikoa.

Borondate politikoa behar dugu herri ekimena errazteko eta elkarrizketa eta solasaldirako marko egonkorra sortzeko. Negozigarriak ez diren lerro gorriak, kale itsuetara garamatzatenak, laranja kolorekoekin ordezkatzeko komeni da.

d. Inklusioa eta kohesioa.

Indarkeria sexista, klasista eta arrazistaren aurkako herri ekimen inklusiboak bultzatzeko ere borondate politikoa behar da. Noizean behin, proiektu hauen barruan eta euren aniztasunaren izenean, balore hauekin bat ez datozen ekintzak burutzen dira. Perfekzio eta kongruentzia logikarik eza puntu bat onartuz gero, ekimen anitzen arteko azterketa eta elkarbizitza ahalbidetzen dugu eta hau garrantzitsua da aniztasuna eta proiektu hauek partekatzen ditugun ekimen arteko akordio markoa babesteko. Herri ekimenak administrazio publikoari eskatzen diona bezala.

e. Adostasun eta kritika.

Noizean behin, herri ekimenak kritika politika antagonista dakar berarekin. Baliagarria eta zilegi da kontra proposamen ideologiko anitzak osasun politikoaren adierazgarriak direlako. Aldi berean, kontrajarrian dauden proposamen politikoaren arteko gutxieneko akordioa egon behar da. Administrazioaren boterea herritarren proiektuak ahultzeko ez erabiltzea beharrezkoa da. Komuneko erronken definizioan aukera egon daiteke komunitate kudeaketa lekuak sortu, babestu eta laguntzen duten akordioetara heltzeko.

f. Erraztea eta harremanak estutzea.

Topaketa errazteko lanari buruz hausnarketa eginez, harremanak estutze lana dela uste dugu. Hau da, bi aldeetan artean harremanak sortzea. Ez dago marko zurrunik, eredia moldagarria da testuinguru eta pertsonen arabera. Errazte lanerako hiru egoera posible prestatu ditugu:

- > Egoerak non alderdien arteko akordioa eta baliabideen kudeaketarako errazte profesionala beharrezkoa izan daiteke.
- > Egoera batzuetan, behar bada, ez da bitartekari lan hori behar. Kasu hauetan, lan hau proiektuaren lan nagusia da eta borondateetik aniztasunaren kudeaketa lana egiten du. Naturala da. Ez dugu esaten "bitartekotza egingo dugu".
- > Hirugarren aukera profesional eta beste alderdien artean talde partekatua sortzea da. Talde eragile mistoa.

g. Denbora.

Baliabiderik estimatuena denbora da. Prozesu hauek ezin dira edozein momentu eta leutan egin. Elkartzeko lekuak eta momentuak zaindu behar dira eta lan egiteko moduak. Mugimendu sozialek eta ez administrazio publikoak denbora eta kalitatea zehaztu behar dute.

h. Baliabideak.

Baliabide ekonomikoez gain, agerian utzi behar dira alderdi biek banatuko dituzten trebetasunak, ezagutzak, esperientziak, baliabideak, legitimazioak, harremanak, energiak bezala zehazten diren kapitalak. Alderdi biak hau dena banatzeko prest daude lekuen elkarren arteko kudeaketa errazteko. Elkarrekin lan egiteko aitortza eta agerian jartzea abiapuntu garrantzitsua da Alderdi bien kapitalak, ez bakarrik herritarrenak onartzeaz hitz egin genuen. Proiektu hauetan baliabide ekonomikoak gastutat hartzen dira eta ez inbertsionatzen. Esperientzia batzuetan proiektu batek aurrekontu handia dauka eta helburua pertsonen bizitza kalitatean eragina edukitzea da. Hau inbertsio atalean sartzen da. Ezinbestekoa da ziklo handiak proposatzea hauteskunderen erritmoek iraunkortasunaren aurka ez joateko eta hau da hori egiteko modu bat.



4.4 KONTZESIO ETA ADJUDIKAZIORAKO IRIZPIDEAK



Administrazio publikoak eta herritarrek espazio publikoen komunitatearen kudeaketan sartzeko gardentasuna bermatzen duten irizpideak eskatzen dituzte. BherriLaben arlo honetan egindako lanaren barruan daude: irizpide hauek zeintzuk diren ezartzea, aurretik elkarrekin sortzea, kasu bakoitzera eta herritarren ekimenei laguntzen dieten udalaren tresnetara egokitzen saiatzea da. Zurruntasunetik zehaztasunera, justiziatik ekitatera eta eredu itxi batetik esperimentu aplikatura goaz.

Lagatze eta esleipen irizpideen arloaren garapenerako irizpide batzuk egotea eta aurretik esperientzia positiboak izatea beharrezkoa da. Honetaz gain, abiapuntua eta hausnarketa lantzeko bi material dauzkagu erabilgarri.

Abenduaren 18an egindako [BherriLab](#) bigarren saioan bi material landu ziren, eta material horiek gogoetarako eta lan egiteko abiapuntu gisa erabili ziren:

- > Alde batetik, arlo horren inguruan Durangon adostu genituen [tentsio nagusiak](#). Laburbilduz, tentsio horiek honako hauek dira: ez egitea araudi baztertzaille bat, baizik eta irizpide zehatzak ezartzea, testuinguruari hobeto egokitutako hainbat proiektu egiteko eskuratu nahi diren ezaugarriak identifikatzen lagunduko digutenak; irizpide ekitatiboak definitzea (bai eta bidezkoak ere); eta herritarren ekimenak garatzen laguntzea eta garapen hori erraztea, irizpide horiek lortu ahal izateko.
- > Bestetik, [Requisits i criteris Patrimoni ciudadà](#) izeneko dokumentua. Dokumentu hori zirriborro bat da, Bartzelonako testuingurua aintzat hartuta egindakoa, eta, gure ustez, bizi garen hiriko testuinguruetara estrapolatu daiteke. Dokumentu horren edukia aurretiazko esperientzia gisa erabili dezakegu, eta, esperientzia horren bidez, eztabaidatuko, aldaketak gehituko eta ondorioak aterako ditugu.

Hona hemen bigarren saio horren hiru emaitza nagusiak:

- > Kontzesio-ereduei eta eredu horien irizpideei buruzko aurretiazko zenbait xehetasun.
- > Jokabideei lotutako hainbat gomendio, eta gomendio horiei jarraitu beharko zaie maila pertsonalean, irizpideak aplikatzean.
- > Bi proposamen tekniko: erreferentziazko irizpideen zerrendari ekarpenak egitea, bai eta herritarren ekimenak gauzatzeko udalak ematen dituen baliabideen kit bat ere.

4.4.1 Kontzesio-ereduei eta eredu horien irizpideei buruzko aurretiatzko zenbait xehetasun.

Aurretiatzko zenbait xehetasun jaso ditugu, eta xehetasun horiek lagunduko digute irizpideei eta aurrekari izango den autoexijentziari lotutako proposamen-izaerako lana gauzatzen.

- a. Honako kasu hau aintzat hartuta egiten dugu lan: herri-administrazioak “uzten die herritarrei baliabide publikoak erabiltzen/kudeatzen”. Esaldi horrek boterez hornitzen du administrazioa. Hala, administrazioa ekintzaren subjektua izango litzateke, eta herritarrak, ordea, osagarri zuzena —menpekoak—. Esaldi horrek norabide bat ezartzen du, goitik behera, eta, horrenbestez, hierarkiak, desoreka eta berdintasunik eza indartzen ditu. Edozein kasutan, aipatu kasua ez da kasuistika osoko aukera bakarra —espazio publiko eta pribatuak hartzea, espazio berriak sortzea...—; eta ez da, inondik inora, baliabide publikoen kudeaketa publiko eta soziala gauzatzeko eredu bikaina.
- b. “Administrazioak eta herritarrek esleipen-irizpideak argi izatea eskatzen dute” baieztapena egiazkoa da. Hala ere, baieztapen horren kasuan, deialdi edo lehiaketa publikoei lotutako kasuez ari gara, eta ez da inondik inora zehazten nork edo nola sortu eta/edo erabaki behar diren irizpide horiek.
- c. Gaur egun, “kudeatzeko-lagatzeko antzinako logika eta ereduak” ditugu jarraibide, hau da, baliabide bat dut, lagapen-deialdi bat jarriko dut martxan eta elkarrekin konkurrirako dira. Eredu horiek ez dute herritarren ekimenen egungo errealitatea betetzen, eta bada ordua eredu berriak definitzeko, irizpideak aplikatu ahal izateko.
- d. Hainbat irizpide ezarri ahal/behar dira —irizpideen esparru bat—, baina, kasu orotan, proiektuan aplikatu beharreko irizpide zehatzak hautatu beharko dira —betiere kudeaketa-eredu anitz bati jarraikiz—. Halaber, irizpide ekitatiboagoak eta bidezkoagoak ezartzeko modua da hori.
- e. Noiz aplikatu behar dira irizpideak? Espazio bat esleitu aurretik? Espazioari buruzko eskaera bat jasotzean? Proiektua sortzean? Proiektua aurretiatzko hainbat irizpide oinarritzat hartuta sortu ahal/behar da?
- f. Gipuzkoako herritar gazteei baliabide publikoak lagatzeari buruzko adibide bat emango da jarraian. Adibide horren onura da gazteekin parte hartzeak ikaskuntza praktikoa dakarrela. Izan ere, adibide horren baitan kudeaketa publiko eta sozialari lotutako kasuistika osoa dago sartuta. Kasu honetan, herritar gazteei eskatutako proiektuak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

- > **Irekia izatea.** Proiektua erabiltzea ez da soilik biztanleria-talde konkreturen bati zuzenduta egongo.
- > **Bitartekaritza mistoa.** Udalarekin eta autoantolamenduarekin bitartekotza egiteko eredu misto bati jarraituko dio proiektuak.
- > **Harremana ezartzea.** Herri-administrazioak gertuko harremana ezarriko du proiektuarekin —ez fiskalizazioari lotutakoa, baizik eta ezagutzari eta laguntzeko prest egoteari lotutakoa—.
- > **Lurraldearekiko errotzea.** Proiektuaren gutxieneko irizpidea, jardueraren bat egokia den ala ez argitzeko erabili daitekeena, udalerrri gehienari mesede egitea izan behar da.

4.4.2 Jokabideei lotutako gomendioak, irizpideak aplikatzeko.

Bigarren atal honetan, hainbat gogoeta jaso ditugu jarrerei eta alde aurretiko jarrera pertsonalei buruz, betiere esleipen-irizpideak sortu eta aplikatzeko, bai eta herritarren ekimenak aztertzeko ere.

a. **Ziurgabetasun-printzipioa txertatzea.**

Herri-administrazioak malgutasunez jokatu behar du herritarren eskaerak eta proiektuak jaso/ebalatu/baloratu/eransteko orduan. Gauza berri eta esperimental bat eraikitzen dugunean, a priori, ez dakigu zein izango den emaitza. Ezinezkoa da gauza berri bat hastea azken emaitza zein izango den guztiz jakinda —zurruntasunetik zorrotasunera pasatzea—.

b. **Prozesua ez da estandarizatu behar.**

Baztertu behar dugu herritarren ekimenetatik eratorritako proiektuek aurretiaz ezarritako egitura lineala dutelako pentsamendua, hasiera, garapen eta amaiera zehatz batekin. Izan ere, proiektuak etengabe garatzen dira; hasi eta bukatu egiten dira une eta norabide ezberdinetan —esperimentatzea—. Horrenbestez, alde batera utzi behar da hitzarmenak itxiak eta aurretiaz ezartzen direlako eta hitzarmen horiek hasiera, garapen eta amaiera bat dutelako logika. Horren ordez, formularen bat aurkitu behar da harreman publikoa eta soziala ezarri ahal izateko, etengabe garatzen eta aldatzen den ekimen baten baitan.

c. **Logika bitarrak hautsi behar dira.**

Gaur egun, harremanak ezartzen dira oraindik ere herri-administrazioen eta herritarren artean. Alde batek “beste hori”, “aurrean dagoena”, “beste aldean dagoena” esaldiez baliatzen da beste aldea deskribatzeko. Logika bitar hori prozesuak, negoziaketak, baterako

lana eta konfiantza planteatzeko moduan islatzen da, eta hizkuntzek eta erritmo nahiz forma ezberdinek agerian uzten dute logika hori.

4.4.3 Bi proposamen tekniko.

4.4.3.1 Kontzesio- eta esleipen-irizpideetarako ekarpena.

Orokorrean, ados gaude [Requisits i criteris Patrimoni ciutadà](#) dokumentuan jasotako irizpideekin. Gauzak horrela, dokumentuan gehitutako askotariko irizpideen inguruko iruzkina egin da (4. atala), eta ekarpenak gehitu dira azpiatal bakoitzean.

4.1 Entitateak derrigorrez bete behar dituen irizpideak (berezko forma juridikoa + irabazi-asmorik ez egotea) – 5. orrialdea.

- > Pertsona juridikoekin soilik harremanak ezartzeak oztopotzat hartzen da. Halaber, mugimendu herritarretan oinarritutako ekimenak ere aintzat hartu behar dira, eta ekimen horiek ez dute zertan lege-figurarik izan behar. Horrez gain, larrialdiari, aniztasunari eta errealitaterik ahulenari ere eskaini behar zaio arreta. Adibide gisa, [Portugaleteko Azoka](#) erabiltzeari buruzko hitzarmena nabarmendu nahiko genuke. Hitzarmen horrek Azokaren Aldeko Batzar Irekiaren eta udalaren arteko parte-hartzea ezarri zuen auzo elkartearen bidez; auzo elkarte hori batzarraren parte da, bai eta batzar horren ordezkari ere.

- > Atal honetan sartutako “irabazi-asmorik gabe” kontzeptuak dakarren ideia indartzen da, eta derrigorrezko gardentasun ekonomikoaren aukera ere gehitzen da, hau da, kontuak eta balantzeak aurkeztea. Udal administrazio gehienetan, herritarren ekimenek ekonomia sortzeko aukera —betiere akordioa egin eta gero— ez dago modu egokian ebatzita. Hainbat prozesu herritar garatu ahal izateko, prozesuok ekonomiak sortu behar dituzte etengabe. Har dezagun, adibide gisa, prozesu herritar bat, bere garapen-prozesuan zehar autoenpleguari buruzko proiektu bat sustatzea helburu duena, betiere gizarte-ekimeneko kooperatiba baten figura juridikoaren mendean. Normalean, hori oztopoa da administrazioarekin ezarritako harremana-kudeaketa mantendu ahal izateko; ekonomia jokoan denean, kasu guztietan, ekonomia horren ardura beste sail batek hartzen du —sustapen ekonomikoa, edo antzekoa—, eta, aldaketa horren baitan, badirudi proiektua hutsetik hasiko dela.

4.2.(3) Batasunaren intereseko proiektua / itzulkin soziala – 5. orrialdea.

- > Atal honi dagokionez, ez dago desadostasunik. Besterik gabe, gizarte-inpaktua neurtzea zaila dela nabarmentzen da, itzulkin soziala zer den dimentsionatzeko xedez. Prozesu horiek aurrera eramateko, beharrezkoa da: neurketa-sistemak eta adierazleak elkarrekin sortu eta adostea; emaitza kualitatibo eta kuantitatiboak berdin baloratzea; eta emaitza horiek modu kritikoan aztertu eta interpretatzea.

4.2.(4) Lurraldearekiko errotzea eta loturak – 6. orrialdea.

- > Atal honetan, laugarren irizpide bat ezartzea proposatu dugu: entitateak auzoan duen inplikazioak balioa ekartzea lurraldeari. Hau da, inplikazio horretatik eratorritako ekintzek eragin onuragarria izan behar dute zuzeneko edo zeharkako lurraldean —jakintzak ekartzea, lurraldearen garapen sozialean laguntzea, eragin positiboa izatea lurraldearen dinamika sozialean, eta abar—.

4.2.(5) Gardentasuna – 6. orrialdea.

- > Honako hau nabarmendu nahi dugu: gardentasuna hiritarrek eta administrazioak ezarri behar dute elkarrekin —bai eta definitu nahiz adostu ere—.
- > Erraza izan behar da irizpide horiek eskuratzea —online—, eta hizkuntza sinplea eta irakurterraza erabiliz idatzi behar dira.
- > Era berean, bi puntu horiek ebaluazio-adierazleei aplikatu dakizkieke.
- > Gardentasunaren ideiak, gainera, beste dimentsio bat hartu behar du, alegia, gainerako herritarrek proiektua bera ezagutzeko aukera izatea.

4.2.(6) Irekiera, irisgarritasuna eta atxikipen askea – 7. orrialdea.

- > Atal honetan, parte-hartze irekiari buruzko hainbat ezaugarri jaso ditugu. Ezaugarri horiek espazioa erabiltzeari ezartzen zaizkio, eta ez entitate edo proiektuari. Adibide gisa, [Donostiako Emakumeen Etxea](#) nabarmendu nahi dugu. Izan ere, espazio bera kudeatzea helburu duten askotariko ekimenak egiten dira han, eta helburu hori ere duten erakundeak daude.

4.2.(7) Parte-hartzea eta barne demokrazia – 7. orrialdea.

- > Gure proposamena da irizpide hori ekualizatzea proiektu bakoitzaren ezaugarrien arabera. Testuan, ez-interferentzia eta barne funtzionamenduaren autonomiaren printzipioa dago jasota, baina, gure ustez, ez da garrantzitsua atal hori nabarmentzea.

4.2.(8) Jasangarritasuna eta autosufizientzia – 8. orrialdea.

- > Irizpide horrek erakusten du garrantzi handikoa dela irizpideen aplikazioa aldatzea proiektu bakoitzaren arabera. Halaber, gure ustez, irizpide hori emaitza ekonomikoen gardentasunari egon behar da lotuta.

4.2.(9) Kontu-ematea eta komunikazioa – 9. orrialdea.

- > Atal hau aurretik aipatutakoari dago lotuta, alegia, proiektuaren balioak eta etikak ezagutzeko proiektu hori gardena izateari.

4.3 Funtsezko printzipio eta balio etikoak (Jardunbide egokiak) – 9. orrialdea.

- > Aurretiaz ezarritako funtsezko irizpide batzuk behar dira. Hainbat marra gorri: proiektu mota definituko duten balio eta printzipio etikoak.
- > “Zerbait lortzeko jarrera izatea”ren printzipioa gehitzea. Anbigua badirudi ere, oztopoak eta desadostasunak gaindi daitezkeelako aldez aurreko jarrera izatea garrantzi handikoa da proiektuak garatzeko eta elkarlanean aritzeko.

4.4.4 Udalak ematen dituen baliabideak, herri-ekimenak garatzeko.

Oso kontuan dugu irizpide argiak izateko egokitasuna, baina ez dugu oso barneratuta herri-ekimenen garapenean laguntzeko beharra, ekimen horiek handitu eta indartu daitezen, bai eta irizpide horiek bete/gainditu ditzaten ere.

Udalerriek herritarrak zerbitzatzeko hainbat tresna dituzte, eta tresna horiek ideia hori lantzen dute. Tresna horiek gradiente-ekualizadore batean sar daitezke, haien ahalmen, izaera eta eraginaren arabera. Hala, tresna horiek kit baten partetzat hartuko dira, udal bakoitzak aktibatutako ekimenei balioa emango zaie eta beste ekimen batzuk ezar daitezen sustatu-motibatuko da.

BherriLabeko bigarren saioan landutako tresnen bidez, aipatu baliabideen kitaren eredu hau sortu dugu, eragin-gradiente baten arabera ordenatutakoa:

<p>ERAGIN HANDIKO TRESNAK</p>	
	<p>Emate integraleko zerbitzuak (programa + taldea):</p> <ul style="list-style-type: none"> > Herrigune (Leioa): tokiko hezkuntza programa bat da, eta bere xedea da esperientzia komunak, biziak eta izandakoak sortzea. Herritarrak programa horren protagonistak izango dira.
	<p>Escuelas ciudadanas:</p> <ul style="list-style-type: none"> > HEI – Herritartasunerako eskola (Gasteiz): prestakuntza + laguntza indibiduala elkarte eta bizilagunei. > Open Eskola, Gobernantza Publikorako herritartasunerako eskola irekia. OPGen konpromisoetako bat.
	<p>Lantalde misto bat eratzea, herritarrei zuzendutako emate-ezaugarriei buruzkoa.</p>
	<p>Herritarren interesen mapaketa egitea, herritarrekin interkonektatzea ahalbidetuko duena, era berean.</p>
	<p>Lurraldearen lehentasunak ikusgarri egitea webgunean —udalerrri orotan indarrean dauden herri-politikak, udal-, probintzia- eta autonomia erkidegoaren mailan—.</p>
	<p>Herri-bitartekotzako saila: erreferentziatzeko pertsona.</p>
	<p>Herri-ekimenetan parte hartzeko informazioa emateko gunea: zuzenean eta online.</p>
<p>ERAGIN TXIKIKO TRESNAK</p>	

4.5 EBALUAKETAREN ADIERAZLEAK



Herri-kudeaketaren proiektuen ebaluaketa betebeharrak ikuskatzaile hutsa balitz hautematen da. Eraginen analisiak dakarren hobekuntza perspektiba ez dago integraturik. Beharbada ebaluaketa kulturaren galera dela eta edo neurketa sistema eta adierazle egiaztatuak falta direlako. Arlo honetan BherriLaben proposamena komunitatearen kudeaketarako ebaluaketa matrize prototipo bat da. Oinarrizko tresna izango da eta adostuko da proiektu bakoitzeko dimentsio, une eta ezaugarri anitzetara erabilgarria eta moldagarria izan

dadin.

Adierazleen nolakotasuna eta izaera eta neurtze-erritmoak oso ezberdin ulertzen dituzte herri-administrazioak eta herri-ekimenek. Herri-proiektuetan kontuak emateko beharra bezala bizitzen da, eta, kasu gutxi batzuetan, prozesuak hobetzeko laguntza bezala. Herri-administrazioarentzat bete beharreko baldintza bat da, proiektuei buruzko ondorioak atera ahal izateko.

Ondasun Erkideaz ari gara, baina, zein paradigmatic egiten dugun kontuan hartuta, neurtzeko irizpideak ezarri edo adierazle eta parametro oso ezberdinak sor ditzakegu, kudeaketa komunitarioa modu antagonikoetan bideratzera iritsi ahal izatearekin batera. Hori dela-eta, lankidetzaz hitz egiten badugu, funtsezkoa eta lehentasunezkoa izango da abiapuntua ezartzea, partekatzea eta ikustaraztea, denentzako hizkuntza erabiliaz, kudeaketa komunitarioarekin zer ulertzen dugun eta nora bideratu nahi dugun jakiteko eta, hortik aurrera, irizpideak eta adierazleak ezarri ahal izateko.

BherriLaben bigarren saioan, bi ikuspegiak hurbiltzen, denen arteko irizpideak ezartzen eta kudeaketa komunitarioaren ebaluazioa bideratzeko balio diguten urratsak ematen ahalegindu ginen. Ebaluazio-adierazleen gaineko abiapuntu eta analisi gisa eta elkarrizketarako eta lanerako oinarrizko material moduan, [Requisits i criteris Patrimoni ciudadà](#) dokumentua erabili genuen.

Dagoeneko baditugu kudeaketa komunitarioarako irizpideak garatzen eta adierazle ezberdinak banakatzen dituzten dokumentu aurreratuak, honako hauek bezalako blokeetan multzokatuta: lurraldearen eta sustraitzearen gaineko irizpideak, itzulera eta konpromiso sozialari buruzko irizpideak, barne-demokrazia eta parte-hartzea eta prozesuen, pertsonen eta itzuleraren gaineko zaintzei buruzkoak.

Dokumentu horien bitartez egindako analisiaren bitartez, batez ere, ebaluazioaren kulturari eta tresna komunak sortzeari buruzko alderdi orokorrak identifikatu genituen, azken horiek ekimenak aplikatzea eta neurtzea errazteko, adierazle bakoitzaren zehaztasunari edo garrantziari hainbeste

erreparatu gabe, horretarako denbora gehiago eta lan edo prozesu xehatuagoa, mugatuagoa eta espezifikoagoa behar baita.

Partekaturiko erreminta bat eraikitzearen inguruko hausnarketa egin genuen, eta irizpideak aplikatzerakoan kontuan izan beharreko zenbait alderdiren inguruan pentsatu, aintzat hartuta zenbaterainoko ekimen, proiektu eta prozesu aurki ditzakegun, eta, batik bat, bi lankidetzaprozesuren analisiaren bitartez, ekimen oso ezberdinenak; ekimen horietan pertsonak hartzen dute parte:

Uliako Lore Baratzak <https://uliakolorebaratzak.wordpress.com/> + Getxo Kirolak prozesua <http://thinkingfadura.eus/es/>

4.5.1 Hausnarketak.

Kudeaketa komunitarioko proiektuen ebaluazioaren inguruan egindako lehen hausnarketa lotuta dago horri ematen diogun balioa eta zentzua galtzarekin. Zein da ebaluazioaren zentzua? Galdera hori egitean, zintzo jokatuta, egiaztatu dugu gure errealitateetan erabat galdu duela hobetzeko eta orientatzeko erreminta gisa izan dezakeen zentzu guztia. Ebaluazioa izapide deserosoa izatera iritsi da, eta kudeaketa komunitarioan denbora galtzea bezala bizi dute bai herri-administrazioak, bai herri-ekimeneak.

- a. Hobetzeko edo aurreratzeko proposamenek, ebaluazio-tresnetan nahiz ebaluazio-adierazleetarako, **ebaluazioaren inguruan dugun kultura berrikustea eskatzen dute**. Ebaluazioaren ideia berreskuratu behar dugu hobetzeko espazio gisa, eta adierazle-mota ezberdinak nora jo nahi dugun orientatzen laguntzen diguten tresna gisa hartu behar ditugu.
- b. Lehentasunezkoa eta funtsezkoa da **baliabideak jartzeak eta ebaluaziorako sistemak eta tresnak** era partekatuan sortzeko aukerak duten garrantzia azpimarratzea, ebaluazio-prozesuak erraztu eta arintzeko.
- c. Oinarrizko erreminta matrize eta komuna dugun ustetik abiatuta, **lankidetzak-akordioa ezartzen den unean, akordioak eta irizpideak parte hartuaz egiten diren lehen fasean bezala, partekaturiko ebaluazio-sistema adostuko da** administrazioaren eta ekimenean artean, kasu bakoitzean adierazle espezifikoak eta neurtzeko denborak —gertaerak eta zikloak— ezarriaz, proiektu bakoitzeko orientazio premiak, nahiak edo borondatea artatuz. Oinarrizko erreminta egokitzen den unea da eta ebaluazio-sistema zehatza, premiazkoa eta espezifikoa neurritara eratzen den unea.

- d. **Une ezberdinetan proiektu ezberdinak badaude, ebaluatzeko maila ezberdinak behar dira, eta, aniztasun horretan, parametro, neurketa eta adierazle ezberdinak hartzen dira kontuan, osatzen dituzten agenteen ekimenen eta komunitateen zehaztasunen arabera.** Ezberdintasun horiek ekimenen izaerari nahiz antolamendu-egiturei eta komunitateei buruzkoak izango dira: ezaugarriak, helburuak, tamaina eta gobernantza-ereduak.
- e. Halaber, garrantzitsua da **ebaluazio-denborak egokitzea** proiektuen eta komunitateen izaerari eta egiturei erreparatuta. Eta proiektuak modu ziklikoan ulertzeak eta ebaluatzeak duen garrantzia azpimarratzea.

Kontuan izan beharreko eta garatzen joan beharreko zenbait ohar, ebaluazio-denborak egokitzeke:

- > Etengabeko ebaluazioak egitearen eta kasu bakoitzean ebaluazioak egiteko gertaerak eta denbora-zikloak ezartzearen eta markatzearen inguruko garrantzia.
- > Ekimenen ibilbidea funtsezkoa da ebaluazio-denborak ezartzerakoan. Proiektu hasiberriek eta jada abian direnek denbora ezberdinak behar dituzte.
- > Adierazle ezberdinek denbora espezifikoak behar izan ditzakete ebaluatuak izateko:
 - > adierazle erlazionalek edo pertsonen jarduera aipatzen dutenek une eta denbora-ziklo ezberdinetako konparazioak eskatzen dituzte.
 - > adierazle sozio-ekonomikoek gutxieneko denbora batzuk behar dituzte neurtu ahal izateko; beraz, hasieran neurtzeko moduko gutxieneko denbora batzuk ezarri behar dira.

4.5.2 Laborategi proposamena.

Prozesua (0 fasea), laborategi bat sortzeko aukera, parte hartuaz forma emateko ebaluaziorako oinarritzko sistema komunari. Ebaluaziorako proposamena, adierazleen eta neurgailuen proposamena egitea eta garatzea eta kudeaketa komunitarioko prozesuetan abiatzeko tresna komun eta moldagarria garatzea.

Tresna hori oinarri malgua izango da, eta kasu ezberdinetara moldatu eta egokitu ahal izango da, proiektuen, testuinguruen eta errealitateen ezaugarrien arabera.

(Erref. [ZIBIMETROAREN aplikazio praktikoa, azpiegitura zibikoak ebaluatzeko metodologia. 180920 ZIBIMETROA LAB-MEETING-18 AKTA](#)).

4.5.3 Kudeaketa komunitariorako ebaluazio-matrizea prototipoa.

Ebaluaziorako inprimakia.

Hiru sakontasun-maila. Adierazle komunak eta baliagarriak pertsona guztientzat.

Neurketa kuantitatiboak, kualitatiboak eta formatu librea.

Hitzen glosarioa, denentzako lengoaia bilatzeko.

Erreminta erabiltzearen eta kasu bakoitzera egokitzeko moduaren gaineko gida.

Datuak ikustera emateko aplikazioa.

- > Inprimaki erako erreminta, ebaluazio-prozesuak bizkortuko dituen, hori erabiltzera gonbidatuaz, kontzienteagoak izaten lagunduaz eta helbururako bidean aurrera egiteko orientatuaz.
- > Parte-hartzearen bitartez eraikita, kudeaketa komunitarioko prozesuetan inplikaturik egon daitezkeen agente ezberdinen premia eta orientazioak artatu behar ditu, eta tartean dauden alde guztientzat adostua, ulergarria eta baliagarria izan behar du.
- > Sakontasun-maila ezberdinekoa, une, egoera, testuinguru, premia edo denbora- eta baliabide- aukera maila bakoitzean ebaluazio gutxi gorabehera xehatua egiteko aukera ematen duena.
- > Sakontasun-mailez gain, ebaluazio-erritmo posible ezberdinak jasoko ditu, proiektuen aniztasunerako gertaeren eta zikloen denbora ezberdinak kontuan hartuaz.
- > Parametro eta adierazle komun orokorragoak eta espezifikoak izango ditu, eta egokitu ahal izango dira ekimenen premia eta orientazioen, erritmoen, tamainen, egituren edo formaren arabera.
- > Neurketa kuantitatiboak eta kualitatiboak, datuak jasotzeko eta narratibak eraikitzeko bestelako formatu posible irekiagoak barne.
- > Erremintak hitzen glosarioa izango du, kontzeptu, adierazle, parametro edo neurtzeko sistema bakoitza azaltzeko eta argitzeko helburuarekin.
- > Erabilgarritasun-gida, atal, maila eta oinarritzko erremintaren egokitzapen posible bakoitza azaltzeko.



bherria

- > Erremintaren datuak ikustarazteko aplikazioa garatzeko aukera, etengabeko ebaluazio-sistema erraztearren. Grafikoen bitartez, parametro eta neurketa ezberdinak erakustea, ekimenen une edo ziklo ezberdinen konparazioak egin ahal izateko denboran zehar.

4.5.4 Dokumentuen datu-basea.

[BherriLab](#)-ean zehar, hainbat esperientzia, eredu eta baliabide batu ditugu, espazio publikoen kudeaketa komunitarioan interes handikoa direnak, hain zuzen. Kontsulta ezazu dokumentuen bilduma hau, Bherria-ko herri-laboregian landutako lau eremuen arabera antolatuta: [esparru juridiko-administratiboa](#), [lankidetzaren publiko-soziala](#), [lagatze irizpideak](#) eta [ebaluazio-adierazleak](#).

5. ERANSKINEN SERRENDA

5.1 [Ebaluazio eranskina](#)

5.2 [Eduki eranskina](#)